# GOBERNU BATZARRA

**2019.12.17**

**Alkatea:**
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Nerea Letamendia Belloso**
**Begoña Tolosa Mendia**
**Patxi Amantegi Zubiria**
**Xabier Balerdi Tolosa**
**Jose Mª Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzailea:**
**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko abenduaren 17an, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.**

1. **2019ko abenduaren 10eko bilkurako akta onartzea.**
2. **Etxe abereen udal ordenantzaren urraketa (A.A.S.): ebazpen proposamena.**
3. **Etxe abereen udal ordenantzaren urraketa (K.D.E.): ebazpen proposamena.**
4. **2019/2060 Dekretuaren berri ematea: 2019/57 eta 2019/58 faktura-zerrendak.**

## 1. 2019KO ABENDUAREN 10EKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko abenduaren 10ean egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

## 2. ETXE ABEREEN UDAL ORDENANTZAREN URRAKETA (A.A.S.): EBAZPEN PROPOSAMENA.

XABIER BALERDI TOLOSA jaunak, Tolosako Udaleko Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoaren Zinegotzi Delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3

D. XABIER BALERDI TOLOSA, Concejal Delegado del Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 21.1 y 21.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del

artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2019/1208 Alkatetzaren Dekretuan xedatutakoaren arabera (GAO 151, 2019ko abuztuaren 9koa), horren bidez eskuordetzen baititu alkate-lehendakariak zinegotzi delegatu honetan hainbat eskumen, horien artean, zehapen-prozedurak: hiritarren segurtasuna, txakurrak, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko araudia, etab.

Régimen Local y de conformidad con las competencias otorgadas por el Decreto de Alcaldía 1208/2019 (BOG 151, de 9 de agosto de 2019) por el que la alcaldesa-presidente delega en este concejal delegado diversas competencias, entre ellas, los procedimientos sancionadores en temas de seguridad ciudadana, perros, normativa sobre la atención integral de adicciones y drogodependencias, etc.

IKUSIRIK

1. Prozedura 2019ko apirilaren 22ko 2019/582 Dekretuaren bidez instruitu ondoren, AAS andreari jakinarazi zitzaiola espediente bat hastia zegoela Etxe abereen udal ordenantzaren 9.2.d) artikulua hausteagatik.

2. Ekainaren 13an, AAS, udal honetako sarrera errejistroko 5403 zenbakia duen idatzian, alegazio hauek aurkeztu zituela:

Egia dela txakurra muturrekorik gabe zeramala.

3. Alegazioan gehitutako adierazpena horiek berretsi egiten dituztela Etxe abereen udal ordenantzaren 9.2.d artikuluan tipifikatutako egintzak, alegia, txakurra, bere ezaugarriak kontuan hartuta, muturrekorik gabe eramatea herriko kale, bide eta espazio publikoetan.

Hau dena kontuan harturik, Udaleko Antolakuntzako zinegotzi delegatuak, egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

VISTO

1. Instruido el procedimiento, mediante Decreto 2019/582 de 22 de abril de 2019, se procedió a notificar a Dña. AAS la incoación del expediente por infracción del artículo 9.2.d) de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

2. En fecha de 13 de junio, Dña. AAS presenta las siguientes alegaciones en escrito con número de registro de entrada 5403 de este Ayuntamiento.

Que es cierto que llevaba a su perro sin bozal.

3. En relación a dichas alegaciones ha de señalarse que las manifestaciones no hacen más que confirmar los hechos tipificados en el artículo 9.2.d de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos, es decir, llevar el perro sin bozal.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta del concejal delegado de Organización, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.-** Frogatutzat jotzea apirilaren 05eko datarekin 582/2019 Dekretuan egotzitako ekintzak.

**PRIMERO.--** Dar por probados los hechos imputados en el Decreto nº 582 /2019 de fecha de 05 de abril.

**BIGARRENA.-** AAS.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzea: zakurra toki publikoetan katearekin lotu gabe eramatea (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.d. artikuluaren arabera). Aipatutako arau-haustea larria da.

**SEGUNDO.-** Declarar cometida por Dña. AAS la infracción consistente en hallarse el perro en lugar público sin bozal (en base al artículo 9.2.d. de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola una infracción grave.

**HIRUGARRENA.-** 300,52 €uroko isuna jartzea AAS.ri.

**TERCERO.-** Imponer a Dña. AAS una multa de 300,52 €uros.

**LAUGARRENA.-** Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

**CUARTO.-** Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

**BOSGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Hiritarren Segurtasun eta Udaltzaingoko Sailari eta Kontuhartzailetzari.

**QUINTO.-** Dar cuenta del presente acuerdo al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal y a Intervención.

## 3. ETXE ABEREEN UDAL ORDENANTZAREN URRAKETA (K.D.E.): EBAZPEN PROPOSAMENA.

XABIER BALERDI TOLOSA jaunak, Tolosako Udaleko Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoaren Zinegotzi Delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2019/1208 Alkatetzaren Dekretuan xedatutakoaren arabera (GAO 151, 2019ko abuztuaren 9koa), horren bidez eskuordetzen baititu alkate-lehendakariak zinegotzi delegatu honetan

D. XABIER BALERDI TOLOSA, Concejal Delegado del Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 21.1 y 21.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y de conformidad con las competencias otorgadas por el Decreto de Alcaldía 1208/2019 (BOG 151, de 9 de agosto de 2019) por el que la alcaldesa-presidente delega en este concejal delegado diversas competencias, entre ellas, los

hainbat eskumen, horien artean, zehapen-prozedurak: hiritarren segurtasuna, txakurrak, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko araudia, etab.

procedimientos sancionadores en temas de seguridad ciudadana, perros, normativa sobre la atención integral de adicciones y drogodependencias, etc.

IKUSIRIK

VISTO

1. Prozedura 2019ko urriaren 21eko 2019/1693 Dekretuaren bidez instruitu ondoren, KDE andreari jakinarazi zitzaiola espediente bat hastia zegoela Etxe abereen udal ordenantzaren 9.2.b) artikulua hausteagatik.

1. Instruido el procedimiento, mediante Decreto 2019/1693 de 21 de octubre de 2019, se procedió a notificar a Dña. KDE la incoación del expediente por infracción del artículo 9.2.b) de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

2. Aurtengo irailaren 29an Ertzaintzan 21086 zbki profestionala duen agente batek KDE NIE Y***450C duena ikusi zuen arrisku handikoa izan daitekeen zakurrarekin eta hau identifikatu gabe zegoen.

2. El día 29 de septiembre de 2019 KDE con NIE Y***450C fue vista por el agente de la Ertzaintza con número profesional 21086 cuando llevaba un perro potencialmente peligroso no habiendo identificado el animal.

3. Aintzat harturik 2006ko otsailaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Etxe abereen udal ordenantza, non txakurren jabe eta partikularren bete beharrak erregulatzen diren, bere 9.2.b artikuluak adierazten du, kalterik egin dezaketen animaliak identifikatzeko obligazioa ez betetzea arau hauste larria dela.

3. En virtud de lo dispuesto en el artículo 9.2.b de la Ordenanza Municipal sobre animales domésticos, con fecha de publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa el 10 de febrero de 2006, por la que se regula las obligaciones particulares de los propietarios o poseedores de animales de especie canina, establece que se considera infracción grave incumplir la obligación de no identificar el animal.

Arau-hausteak eta zehapenak lantzen diren IV tituluaren arabera, 9.2. artikuluan azaltzen diren beharrak ez betetzea, arau-hauste larria izango da.

Tendran la consideración de infracciones administrativas graves el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas en el art. 9.2. del Titulo IV Infracciones y sanciones.

Arau-haustearen ustezko erantzulea KDE da.

La presunta responsable es KDE.

Hori guztia kontuan izanik eta Tolosako Udaleko Antolakuntzako zinegotzi delegatuak, egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta del concejal delegado de Organización, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** Frogatutzat jotzea urriaren 21eko datarekin 1693/2019 Dekretuan egotzitako ekintzak.

**BIGARRENA.-** KDE A.k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzea: arriskutsua den txakurra identifikatu gabe eramatea (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.b artikuluaren arabera). Aipatutako arau-haustea larria da.

**HIRUGARRENA.-** 300,52 €uroko isuna jartzea KDE.ri.

**LAUGARRENA.-** Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

**BOSGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Hiritarren Segurtasun eta Udaltzaingoko Sailari eta Kontuhartzailetzari.

**A C U E R D A**

**PRIMERO.-** Dar por probados los hechos imputados en el Decreto nº 1693 /2019 de fecha de 21 de octubre.

**SEGUNDO.-** Declarar cometida por Dña. KDE la infracción consistente en llevar un perro potencialmente peligroso no habiendo identificado el animal. (en base al artículo 9.2.b. de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola una infracción grave.

**TERCERO.-** Imponer a Dña. KDE una multa de 300,52 €uros.

**CUARTO.-** Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

**QUINTO.-** Dar cuenta del presente acuerdo al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal y a Intervención.

**4. <u>2019/2060 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2019/57 ETA 2019/58 FAKTURA-ZERRENDAK.</u>**

Idazkariak 2019/2060 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

***ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA***

***Zk.: 2019/2060***

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:*

*57 zenbakia duena, 113.226,93 eurokoa.*

*58 zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau*

***EBATZI DU:***

***LENEHIK.-*** *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*57 zenbakia duena, 113.226,93 eurokoa.*

*58 zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.*

***BIGARREN.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Tolosan, 2019ko abenduaren 11n*

*Zinegotzi Delegatuak*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,*
*Idazkaria*

*Begoña Garmendia Vazquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:00an.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**